

Txistaka

SAGAR MUZTIOA sagardotzen ari den barrikari musika dotorea dario, eta ozpin-eulizko orfeoia borobiltzen du. Ez nolanahi, ordea. Vivaldiren *Lau urtarook* sonatuko udan agertzen diren eulitzarren burrunbaren antzekoa denik ez pentsa, ez; alde ederreko fina ozpin-euliena.

Esfera borobilean mugituz egiten dute musika, XVI. mendean Giovanni Gabrielik bere Venezia maiteko San Marko basilikan lortzen zuen musika espazialaren antzekoagoa, alegia. Guztizko biribila.

Gure garaiko Golpes Bajos taldearen *Colecciono moscas* abestia etorri zait gogora. Belarrietara berritu gabe ezin segi.

Eulitxoek hegoak astintzeko ikaragarritzko gaitasuna dute. Euli arrunt batek segundoko berrehunen bat aldiz eragiten die hegoei. Baina badira hegoak segundoko mila aldiz airatzeko gai diren eulitxoak ere.


Ozpin-eulitxo hauek ugaltzeko gaitasun izugarria dute. 25 gradutik gora aste pare bat bizi ohi dira, hamazortzi gradura bikoitza. Eme bakoitzak seiehunen bat arrautza errun ditzake, fruituetan edo bestelako gai organikoetan txista eginez. Milimetro erdiko

koa da, eta bere pisua izugarri txikia da: 0,54 miligramo. Neurrietan marka galanta dute. Ozpin-euli batek (*Drosophila bifurca*) inongo bizidunek egiten dituen espermatozoide luzeenak sortzen ditu: 5,8 zentimetro. Gizasemeon batez bestekoarena baino mila

aldiz handiagoak. Eulitxoaren espermatozoidaren proportziokoa egingo bagenu, gure garaiera baino hogeitaz luzeagoa litzateke. Eulitxo hauen ugaltak bitxikeria gehiago ere badu. Hainbestera inoko espermatozoida sortzen duen arrak "intseminazio traumatikoa" deitzen dena praktikatzen du: emea harrapatu eta

zakilaz soina zultatu eta hazia traktu genitalan sartzen dio. Txista.

Halako musika dotorea egiteko gai diren eulitxo ttiki horiek ama izango direnei zer egiteko gai diren... Gezurra dirudi. ■



Drosophila bifurca.

arrautza egun betera zabalduko da. Jaiotako harra bost egunez hazten da, fruituan bazkatzen ari diren mikroorganismoak jenez. Ondoren, pupa antolatu eta, beste bost eguneko metamorfoiaren ondoren, ozpin-eulia agertuko da. Bi eta lau milimetro arte-







**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira